

APIKA AUDIOVISUAL PROJECT LAB 2025 DEIALDIAREN OINARRIAK

Apika Audiovisual Project LAB Euskadiko ikus-entzunezko produkzio-etxeen kudeaketa hobetzen laguntzeko programa bat da, ikus-entzunezko proiektuen ekoizpena bultzatzera, sortzen ari den talentua sustatzera eta ikus-entzunezko sarea dinamizatzen zuzendua.

Apika Audiovisual Project LABen helburu nagusia da Euskadiko ikus-entzunezko sektoreko profesionalen laguntzea eta bultzatzea, laguntza eskainiz gidoiaren behin betiko bertsioa idazteko eta beren proiektuak ekoizteko estrategian, eta, gainera, orientazio pertsonalizatua ematea beren proiektua behar bezala aurkezteko moduari buruz.

Apika Audiovisual Project LAB ikus-entzunezko proiektuen garapena optimizatzeko laguntza-tresna bat da, Euskadiko ikus-entzunezko ekoiztetxei eta dagozkien gidoi-eta zuzendaritza-taldeei zuzendua, beren kalitate eta ahalmenetatik hautatutako 4-7 proiektuari banakako aholkularitza eta mentoretzen bidez.


Helburua da hautatutako proiektuen garapena indartzea, **gidoiaren azterketaren eta berridazketaren bidez**, **ekoizpen-estrategiaren bidez**, **iraunkortasunari buruzko aholkularitzaren bidez** eta **finantzaketa-bilaketarako aurkezpen-dokumentu egoki baten bidez**, ekoizpen-etxeek gaitasun handiagoa izan dezaten proiektu sendoak garatzeko eta aukerak sortzeko. Horrez gain, **piching-aren prestaketa** egingo da, proiektuaren arduradunek kaudimenez aurkeztu ahal izango dutela ziurtatuz. Berrikuntza gisa, aurtengo edizioan proiektuaren **finantzaketari buruzko aholkularitza** eskainiko da. **Networking saio bat** ere antolatuko da, eta egun bat eskainiko zaie hautatutako proiektuen arduradunei, haien artean eta haien aholkulariekin elkar ezagutu dezaten, Gasteizen egingo den bazkari batera gonbidatuak izango baitira.

Apika Audiovisual Project LAB tresna bat da, proiektu sendoak zehazten lagundu nahi duena, proiektu horiek gauzatzeko behar den finantzaketa lortzeko, erakunde publikoen bidez (laguntzak eta diru-laguntzak) edo erakunde pribatuen bidez, koproduzioen bidez edota telebista kateei eta/edo streaming plataformei egindako salmenten eta/edo horien nazioartekotzearen bidez.

ORGANIZA:

APIKA

PATROCINAN:



COLABORAN:



1.-LAN DINAMIKA

Hautatutako proiektuek programatutako saioetan parte hartuko dute, eta, proiektuaren jasagarritasuna kontuan hartuta, bideokonferentzia bidez egingo dira. Hala ere, beharrezkoa den guztietan, saio presentzialak egiteko aukera baloratuko da. Saio horiek 2025eko MARTXOA eta AZAROA bitartean egingo dira. Antolatzaileek profesionalen eskuragarritasunaren arabera programatuko dituzte saioak. Programa aldatzen ahalko da, antolaketa arrazoiengatik beharrezkoa bada.

Proiektuak banaka landuko dira gidoiaren, ekoizpenaren, marketinaren, jasagarritasunaren, pitchingaren eta finantzaketaren arloetan ospe handia duten profesionalekin, eta helburua izango da proiektu bat egitea dagokion salmenta-dokumentuarekin, produkzio-etxeak proiektua gauzatzeko behar den finantzaketa lortzeko erabili ahal izan dezan.

Eskatzaileak, eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera, elkartearen helbide elektronikora bidali behar du eskaera: apika.asociacion@gmail.com edo Apikaren webgunean aurkituko duten izen-emate formularioa erabili, **Apika Audiovisual Project LAB** atalean.

2.-ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

- Proiektu bakoitzak lantalde bat izan beharko du, gutxienez ekoizlea eta gidoilaria izango dituen. Pertsona berak funtzio horietako bat baino gehiago hartu ahal izango ditu bere gain. Eginkizun horietako bakoitza pertsona batek edo batzuek bete ahal izango dute.
- Eskatzailea proiektuaren ekoizlea izango da. Autonomo gisa alta emandako pertsona juridikoa edo pertsona fisikoa izan daiteke.
- Produktore eskatzaileek helbide soziala edo egoitza Euskadin izan beharko dute.
- Fikziozko proiektuek (film laburrak, film luzeak eta irudi errealeko zein animazioko telesailak), dokumentalek, transmediek eta formatu hibridoek parte hartu ahal izango dute.
- Proiektuek, gutxienez, gidoiaren lehen bertsio bat izan beharko dute, dokumentu-generoa izan ezik, haren izaeraren arabera garapen edo eskaleta bat aurkeztu ahal izango baita, eta lehen aurrekontu bat izan beharko dute. Ezin izango da filmaketa hasita edo postprodukzio fasean duen proiekturik aurkeztu, kasu hauetan izan ezik (adib. dokumentalak), halakoa izateko alde zuzenetik ikerketa edo filmaketa egin behar bada.
- Hautatutako ekoizleek gidoiaren eskubideen titulartasuna berretsi beharko dute. Antolatzaileek gidoiaren gaineko eskubideak lagatzeko kontratua edo eskubide horien titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eskatuko dute. Aukeratutako proiektua egokitzen bada, aukeratutako ekoizleek egokitzen bada, aukeratutako ekoizleek egiteko beharrezko eskubideak dituztela egiaztatu beharko dute. Halaber, gidoi egokitua ikus-entzunezko bidez ustiatzeko eskubideak dituztela

ORGANIZA:

APIKA

PATROCINAN:



ZINEUSKADI

Vital FUNDACIÓN FUNDAZIOA

araba álava foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

VITORIA GASTEIZ green capital

COLABORAN:

ZEPPELIN
creast.

egiazatu beharko dute, edo eskubideak eskuratzeko gutxienez 12 hilabeteko aukera dutela.

- Produkzio-etxe batek gehienez 2 proiektu aurkeztu ahal izango ditu.
- Programa guztiz bateragarria da jasotako edo eskatutako beste edozein laguntzarekin. Eskatzaileek baieztatutako edo eskatutako finantzaketa aitortuko dute, halakorik balego, izena emateko formularioan.

3.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN HASIERA

Eskatzaileek eskaera-formularioa bete eta eskatutako dokumentazio guztia PDF formatuan erantsi beharko dute, edo dokumentazio hori PDF formatuan erantsi Apika elkartearen helbidera apika.asociacion@gmail.com, eta, zehazki, honako hauek jasoko ditu:

- Gidoiaren azken bertsioa, gutxienez elkarrizketaren bidezko bertsioa, dokumentalen kasuan izan ezik.
- Sinopsia: serieen kasuan, kapitulu bakoitzeko sinopsia aurkeztu beharko da.
- Pertsonaien garapena
- Zuzendariaren eta produktorearen txostena eta produktorearen, zuzendariaren eta gidoilariaren CVa.
- Material eta erreferentzia bisualak, eskatzaileak egokitzen jotzen duenean.
- Aurrekontua
- Lan-plana eta finantziario-plana (aukerakoa)
- Proiektuari buruzko informazio guztia, eskatzaileak **Apika Audiovisual Project LAB** deialdiaren esparruan proiektua hautatzen laguntzeko egokitzen jotzen duena.

Eskaera egiteko formularioa APIKAREN webgunean egongo da eskuragarri, eta eskaerak APIKAK horretarako jarriko duen posta elektronikoen bidez entregatuko dira: apika.asociacion@gmail.com.

Antolakuntzak posta elektronikoen bidez jakinaraziko die eskatzaileei proiektuak behar bezala aurkeztu dituztela, edo dokumentazioa zuzendu edo osatu behar dutela. Horretarako, 5 laneguneko epea emango die gehienez. Ez da onartuko materialak zuzentzea edo dokumentazioa epez kanpo bidaltzea, erakundeak informazio gehigarriren bat beharrezkoa dela uste ez badu.


4.-HAUTAPEN BATZORDEA

Hautapen batzordea ikus-entzunezkoen industriako profesionalek eta APIKAKo Zuzendaritza Batzordeko kide batek osatuko dute.

ORGANIZA:

APIKA

PATROCINAN:



COLABORAN:



5.-HAUTAKETA PROZESUA ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Hautapen batzordeak proiektua aztertu eta puntuazio hau emanen du: ebaluazio-irizpide hauetako bakoitzerako:

1. Gidoiaren edo aurkeztutako tratamenduaren kalitatea, originaltasuna, sormena, kalitate literarioa, egitura eta garapena eta bideragarritasun zinematografikoa bereziki baloratuz. 20 punturaino.
2. Proiektuak estatuan/nazioartean koprodukziorako eta hedapenerako duen ahalmena. 10 punturaino.
3. Eskatutako ekipoen ibilbidea. Parte hartzen duten enpresa eta giza baliabideak: ekoiztetxearen, zuzendariaren eta gidoilariaren curriculumak. 10 punturaino.
4. Aurrekontua eta proposatutako proiektuaren garapenari egokitzea. 5 punturaino.

Aurkeztutako proiektu-kopurua dela-eta egoki iritziz gero, antolatzaileek zilegi izanen dute onartutako proiektuen ebaluazio-lana batzordeko kideen artean banatzea, aurkeztutako eskaera-kopuruaren arabera.

Hautaketa-batzordeak, edo lan bakoitza baloratu duten batzordekideek, proiektu bakoitzaren ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen balorazioa egingo dute. Hautaketa Batzordeak hautagaien zerrenda egingo du, lortutako puntuazioen arabera ordenatuta. Zerrenda hori hautaketa-batzordeko kide guztien arteko bilera batean bateratuko da. Beharrezkoa izanez gero, bigarren ebaluazio-fase bat egin daiteke. Hautaketa-batzordeak material osagarria eskatu eta/edo elkarrizketak egin ahal izango dizkie eskatzaileei, **APIKA Audiovisual Project LAB** ikus-entzunezko proiektuak garatzeko programan parte hartuko duten proiektu hautatuak definitzeko.

Hautaketa-batzordeak, gehiengoak hala erabakita, antolatzaileei proposatu ahal izango die deitutako laguntzak hein batean hutsik uztea, baldin eta Hautaketa Batzordearen iritziz kalitate- eta bideragarritasun-maila egokia erdiesten duten proiektu nahikorik ez badago.

APIKAK automatikoki ezabatuko ditu hautatuak izan ez diren eskatzaileek aurkeztutako dokumentuak.

6.-HAUTATUEN BETEBEHARRAK

Ondorengo oinarriak onartzea parte hartzeko eskaera aurkezteko ezinbesteko baldintza izango da.


Hautatuek APIKArekin hitzarmena sinatu beharko dute programan parte hartu ahal izateko. Hitzarmena sinatzean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Pertsona fisikoen kasuan, NANA

ORGANIZA:

APIKA

PATROCINAN:



COLABORAN:



- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra egunean dituela ziurtatzen duen agiria.
- Hautatutako pertsonen gidoiaren gaineko ustiapen-eskubideen titulartasuna dutela egiaztatzen duen dokumentua
- Proiektuaren sinopsia.
- Ekoizle, zuzendari eta gidoilariaren CVa
- Proiektuaren fitxa teknikoa.

Programa hautatutako pertsonen bidaliko zaie parte hartuko dutela baieztatu ondoren, eta online saioez osatuko da, edo, ahal bada eta egoerak horretarako aukera ematen badu, modu presentzian, 2025eko MARTXOA eta AZAROA bitartean. Parte-hartzaileak eta aholkulariak ados jarrita zehaztuko da saioak nola egingo diren, erabilgarri dauden kontuan hartuta.

Guztira, 9 saio egingo dira hautatutako proiektu bakoitzarekin, 3 gidioa berrikusteko eta berridazteko, 3 ekoizpen-estrategia eta aurrekontuak garatzeko eta 3 proiektuaren salmenta-dokumentua eraikitzeke atalean, profesional-taldearekin. Hala ere, diziplina bakoitzeko aholkulari bakoitzarekin paraleloan lan egin ahal izango da, eta arlo bakoitzeko saioak handitu edo murriztu ahal izango dira (gidioa eta produkzio-estrategia), baina inoiz ez dira 9 saio baino gehiago izango, programaren aurrekontu-zuzkidurak hori ahalbidetzen ez badu. Gidioa eta ekoizpen- eta aurrekontu-estrategia berrikusteko eta idazteko saioak amaitu ondoren, proiektu bakoitzak Zeppelin TVko taldearekin lan egingo du, haren finantziarioa bilatzeko salmenta-dokumentu bat lortzeko.

7.-DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA


Eskatzaileek emandako datu pertsonalak ezinbestekoak dira APIKAK **Apika Audiovisual Project LAB** programarako egin duten eskaera kudeatzeko. APIKA elkarteak eskatzaileen datu pertsonalak tratatuko ditu, **Apika Audiovisual Project LAB** programan parte hartu ahal izateko, igorritako eskaeraren kudeaketa, balorazioa eta, hala badagokio, esleipena egiteko eta, onuraduna izanez gero, akordioa sinatzeko helburu hutsarekin. Datuak legezko betebeharrak betetzeko behar den denboran tratatuko dira.

APIKAK Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO) ezarritako betebeharrak guztiak betetzen ditu. APIKAK bere erakundeko kideen datu pertsonalak ematen badizkie **Apika Audiovisual Project LAB** programarako eskaera kudeatzeko, eskatzaileek eta onuradunek konpromisoa hartzen dute datu horiek ez erabiltzeko beren partaidetza kudeatzea ez den beste helburu baterako, eta beren betebeharrak betetzeko, DBEOn eta DBLOn xedatutakoaren arabera.

ORGANIZA:

APIKA

PATROCINAN:



COLABORAN:



Eskatzaileek doan erabili ahal izango dituzte informatzeko, eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, datuak eramateko eta/edo tratamendua mugatzeko dituzten eskubideak, APIKAREN egoitzara (Vitoria-Gasteiz, Badaia kalea, 2, 2. esk.) zuzendutako idatzizko jakinarazpen baten bidez.

8.-IRUDIEN ESKUBIDEAK

Laguntzen eskatzaileek berariazko baimena ematen diote APIKARI, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/82 Lege Organikoaren babesean, prestakuntza-saioetan eta proiektuetan argazkiak atera eta beren irudia grabatzeko. Irudi horiek APIKAK egiten duen eta APIKAREKIN edo **Apika Audiovisual Project LAB**ekin harremana duen edozein publizitate- edota sustapen-jardueratan erabili ahal izango dira.

APIKAK argazkiak eta grabazioak erabiltzeko eskubidea izango du, behartuta egon gabe, eta betiere dokumentu honetan adierazitako helburuekin. Argazkiak eta grabazioak osorik edo partzialki erabili ahal izango ditu, baita horiek aldatu edo egokitu ere. Argazkien eta grabazioen gainean APIKARI transferitutako eskubideak, beraz, publizitate- eta/edo sustapen-jarduera oro gauzatzeko eta komunikatzeko ezinbestekoak diren ustiapen-eskubide guztiak izango dira.

Baimen hau guztiz doan ematen da, eta ez dago inolako eskatzailek APIKARI ezer erreklamatzeko baimen honen ondorioz. Era berean, berariaz uko egiten dio oinarri hauek onartuz APIKAREN aurka gerora egindako erreklamazio judizial edo estrajudizial orori, aipatutako irudiak adostasunez eta dokumentu honetan jasotako helburuekin erabiltzeagatik.

Irudi horietatik biltzen diren datuak APIKAREN ardurapeko fitxategi batean sartuko dira (helbidea: Badaia kalea 2, 2. esk., Vitoria-Gasteiz), argazkien eta grabazioen edukia aurretik deskribatutako helburuetarako erabiltzeko soilik.

Azkenik, laguntzak eskatzen dituzten pertsonak laguntzak sustatzen laguntzeko konpromisoa hartzen dute, APIKAK horretarako egin nahi dituen komunikazio-ekintzekin lankidetzan arituz (elkarrizketak komunikabideetan, sare sozialetako presentzia, etab.).


Era berean, proiektuaren datuen artean **APIKA Audiovisual Project LAB**en izena eta babesleen logoak sartu behar dira, Apikak emango duen kartoi baten bidez.

Era berean, ateratzen diren filmaren edo seriearen kreditu-tituluetan **APIKA Audiovisual Project LAB**en izena eta babesleen logoak sartzea, Apikak emango duen kartoiaren bidez.

ORGANIZA:

APIKA

PATROCINAN:



COLABORAN:

